

GLORIA OKENDO-RI

BERE TALLUNZA GOITITZEKO EGUNEAN



Gaur Donostia gozoro dago
 pozgari oso, gozo, bai,
 alde denetan alegianza,
 dauka ta degu denok jai:
 —bañan ¿zergatik ordean orla?
 ¿zer gertatzen da? ¿zer da gai?
 —zer izango da, Okendo baita
 bere jargoian para nai.

Goiengoko mallan ikusi
 dediñ Okendo jarriya,
 alchatu zaio dorre galai bat
 oso begiragarriya;
 au da lan orain artian egin
 diranetatik berriya,
 zeñak onratzen dituben, bere
 egilliakin erriya.

¿Zer zan Okendo? esango dute
 askok, ¿Okendo au nor zan?
 ¿orla argira ateratzeko
 gizon moduren bat alzan?
 —bai, gaur ematen zaion gloria
 bereztutzeko diñ bazan,
 etzan dorrean puntan parako
 aundiya izan ezpazan.

Españiaren onra gatian
 naiz baitzan urrutietan
 eiatzen etsai gogorren kontra
 bañan guratzen benetan:
 ¿alda izandu beste bat bere
 ausardikorik uretan?
 ez, au zan garaitlari irten oi
 beti alderdi denetan.

Ni ez naiz emen ariko bere
 egintza denak kontatzen,
 Erato-k duben liraren soñu
 gozo donzuban kantatzen,
 ez det jardungo grazi geyegiz
 aundiya zana edertzen,
 ez naiz ariko ez naiz jardungo
 kondari dena agertzen.

Bakarrik, nai det onratu kantuz
 Okendo bere erriyan;
 ara non degun bera, gaur bere
 oroikagarri berriyan,
 daguen lekutik ikusten dula
 jaiotechea mendiyen
 itsas gañekok lur zelai zabal
 loreztubaren erdiyan,

Zere seineak para zaituzte
 dorre gañean betiko,
 ezda zu ortik kentzen etsaien
 eskurik inoiz asiko;
 or zera ipar aize gozoak
 eranaz beti biziko,
 zutik gelditzen zera munduak
 diraun denbora guziko.

Pasako dira giza aldiyak
 urtiak millak bai juango,
 il ziran lenak, dute gugatik
 ondorengoak esango,
 denborarekin ez da arrasto
 giñanik ere izango,
 bañan zurea bai, zu or zera
 beti bizirik egongo.

Donostiak gaur onratzen zaitu
 merezi dezun moduan,
 nai zaitu apain ta eder utzi
 gerokoentzat munduan;
 nola gloria lenaz zedorrek
 onera bildu zenduan,
 biba Okendo, gloriáz bizi
 zaitez emen ta zeruan.

RAMON ARTOLA.

